



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **UDALBATZARRAK 2015eko URRIAREN 27an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA**

2015eko urriaren 27an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M<sup>a</sup> Aranzabe Urruzola  
Onintza Gorostidi Murua  
Jose Ramon Hernandez Cristobal  
Uxue Etxebeste Eizagirre

Bere ezin etorria azaltzen dute: Xabier Mugika Letamendia eta Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.  
-2015eko irailaren 15ean egindako ohiko bilkuraren akta.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Beleburupe Etxean aterpe bat birgaitzeko obra baimena eskera, F.C.C.**
- 5. Alkizako Urruzola Baserrian etxebizitza berriaren legeztapen baimen eskaera, M.A.**
- 6. Lankidetz hitzarmenari atxikitzea, Trafikoko buruzagitza Nagusia Erakunde Autonomoaren eta "federación española de municipios y provincias"-en artekoa, informazioa trukatzeko eta euren artean lankidetzan aritzeko.**
- 7. 2016 urterako udal ordenantza fiskalak eta udal zerbitzuengatikoko tasa eta prezio publikoen ordenantzak onartzea, hala bada.**
- 8. Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2015 urterako ekarpena burutzea, hala bada.**
- 9. Beste batzuk.**
- 10. Erregu, galdera eta mozioak.**

.../...



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **LEHENENGO PUNTUA** **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2015eko irailaren 15eko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

### **BIGARREN PUNTUA** **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

39/2015 Alkatetza Ebazpena, urriaren 8koa, Alkizako Sakamidra auzoan Excavaciones Peru S.L. lizentziatik kanpo egiten ari den obrak gelditzeko errekerimendua, ebazten duena.

40/2015 Alkatetza Ebazpena, urriaren 16koa, lametza interaktiboa enpresari esleitzea Alkizako webgunea liferay plataformara migratzeko proiektua gauzatzea, ebazten duena.

41/2015 Alkatetza Ebazpena, urriaren 21ekoa, N.B. andreari 45,50 eurotako diru-laguntza ematea, ebazten duena.

42/2015 Alkatetza Ebazpena, urriaren 1ekoa, Actuaciones de mejora de la funcionalidad ecológica del bosque en la Zec Hernio-Gazume en el termino municipal de Alkiza jarduna gauzatzeko onespena ematea, ebazten duena.

### **HIRUGARREN PUNTUA** **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ARRATE IRRATIA	108,90
SARASOLA	162,14
TOLOMENDI	6.750,00
EBA ERKIZIA	2.728,81
TRANSPORTES ALBERTO ROTETA	992,20



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

TINTA INPRIMATEGIA	618,40
SEIKIN	464,64
NOTARIA-PEDRO ELOSEGUI	500,96
AUDAX	183,47
AUDAX	498,78
AUDAX	138,96
SOLRED	83,46
REPSOL BUTANO	15,96
REPSOL BUTANO	10,27
REPSOL BUTANO	8,39
BIDATEK	1.697,63
AUDAX	17,58
AUDAX	50,85
AUDAX	81,78
AUDAX	57,03
AUDAX	38,35
IBERDROLA	30,72
AUDAX	60,50
MOVISTAR FIJO	75,79
MOVISTAR FIJO	66,68
BIDATEK	471,90
EBA ERKIZIA	757,01
EBA ERKIZIA	1.005,81
BELAKO	72,60
TOLOMENDI	150,00
ANTZA INPRIMATEGIA	347,27
CALPARSORO INDUSTRIAL	72,43
BIDATEK	471,90
KOPI&EUSKO	5,30
KOPI&EUSKO	212,36
KOPI&EUSKO	90,00
BRUNEAU	128,67
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	36,30
IZADI LABORATEGIA	152,94
CORREOS	141,62
DIONISIO ORMAZABAL	31,38
AUDAX	185,80
BULEGOAK	129,28
CORREOS	4,69



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

IZADI LABORATEGIA	152,94
M.URANGA	55,66
RECAMBIOS IBARRA	13,77
SOLRED	57,77
EUSKALTEL	87,77

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **20.277,51** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

#### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **BELEBURPE ETXEAN ATERPE BAT BIRGAITZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, F.C.C.**

Ikusirik F.C.C. jaunak eginiko eskaera, non Beleburpe etxean dagoen aterpea birgaitzeko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik, 2015eko urriaren 23an Udal Aholkulari teknikoa den Eba Erkizia Brion arkitektoak eginiko txostenean dioena:

#### **“ALKIZAKO BELEBURPE ETXEKO ATERPEA ERABERRITZEKO ESKAERARI BURUZKO TXOSTENA**

*F.C.C. jaunak, Beleburpe etxeako aterpea eraberritzeko baimena eskatzen du, lanen aurrekontua eta krokisa eta argazki batzuk aurkezten dituelarik. Aurreko dokumentazioa ikusirik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkeztutako idatziaren arabera gaur egun dagoen aterpea, teila eta egurrezko batengatik aldatu nahi da, eranskinaren neurriak 5,50m\*4m izanik (okupazioa 22m<sup>2</sup>). Lanen aurrekontua BEZ-a gabe 1.255,10 €-koa da.*

*Beleburpe etxea Alkizako “Ingurumen hobekuntzarako lur ez-hiritargarran” katurik dago. Alkizako arau subsidiarioen arabera eraikinak ez du inolako katalogazio edo babes berezirik.*

*“Ingurumen hobekuntzarako lur ez-hiritargarran” egoitzarako edozein erabilera edo jarduera iraunkorra debekatua dago, baina, Alkizako Hiri Antolaketako Arauen aldaketa lurzoru hiritarrezinaren 2.3.a artikulua (2006-ko BOG 210), aurretik hor dauden baserriak eta egungo etxebizitza familiabakarren eraikuntzak kontsolidatuak geratzen direla esaten du.*

*Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6º artikulua arabera, egun dauden mota*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*guzietako eraikin eta instalazioen zabalkuntza obrek eta hauen kanpoaldeko itxuraren aldaketak aurretiazko lizentziari loturik egon behar dira.*

*2/2006 Lurzoru legearen 199 artikulua arabera, "Lursail, etxe, eraikin eta instalazioen jabeek nahitaez dute ondasun horiek segurtasun, osasun, begirune eta apaintasun publikoko egoera onean mantentzeko eginbeharra. Horretarako, behar diren kontserbatze- eta birgaitze-lanak egingo dituzte, bertako bizigaitasuna eta benetako erabilera bermatzeko."*

*Hau honela izanik, eskarian azaltzen diren lanak legeztagarriak direla informazten dut.*

*\*Lanak irauten duten bitartean, legeek ezartzen dituzten arauzko segurtasun neurriak gorde behar dira.*

*\*Lanak amaitzean, eraispentxostenak behar bezala kudeatu izana egiaztatzen."*

Gaia aztertutik bertaratuek aho batez ondorengoa,

## ERABAKITZEN DUTE

LEHENENGOA.- F.C.C. jaunak eginiko obra baimena eskaera onestea, hau da, Alkizako Belebuzpe etxeko aterpea eraberritzeko obra baimena ematea, betiere Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen badira.

BIGARRENA.-Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena onartzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

### **ALKIZAKO URRUZOLA BASERRIAN ETXEBIZITZA BERRIAREN LEGEZTAPEN BAIMENA ESKAERA, M.A.**

Ikusirik M.A. andreak eginiko eskaera, non Alkizako Urruzola baserrian dagoen 2º etxebizitza legeztatzeko baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik 2015eko urriaren 26an, Udal Aholkulari teknikoa den Eba Erkizia arkitektoak eginiko txostenean dioena:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **“ALKIZAKO URRUZOLA BASERRIAN DAGOEN 2º ETXEBIZITZA LEGEZTATZEKO ESKAERARI TXOSTENA**

*M.A.A. andereak, Alkizako Urruzola baserrian dagoen 2º etxebizitza legeztatzeko, Aritz Berastegi, Enrike Etxeberria eta Josu Laguardia arkitektoek sinatutako Legeztatze txosten bisatua aurkezten du. Hau dena azterturik, **ZERA ADIERAZTEN DUT:***

*Aurkeztutako Urruzola baserriko etxebizitza erabileraren txostenean, eraikinarik zuten landa-turismoko espazioa, etxebizitza erabilera baterako legeztatu nahi da. Landaturismoko erabilera eta lanek 1991ean udal baimena jaso zuten. Etxebizitza erabilera honetarako ez da eraikuntza obra nabarmenik egin. Dokumentuaren arabera, tabike bat bota eta logela nagusia egokitu da besterik ez. Lan hauek 400€- tan baloratzen dira.*

*Legeztatu nahi den etxebizitza berria baserriaren hego mendebaldean kokatzen da. Bere azalera erabilgarria 197,75m<sup>2</sup> da, azalera eraikigarria 295,20m<sup>2</sup> izanik. 5 logela, sukaldea, jan-egongela, 4 komun eta bi trastelekuz osatua dago.*

*Alkizako Hiri Antolaketako Arauen 6º artikuluaen arabera, eraikinen antolaketa aldatzen duten obrak eta eraikinen lehen erabilpenak, aurretiazko lizentziari loturik egon behar dira.*

*Urruzola baserria, Alkizako Hiri Antolamenduko 1996-eko Arau Subsidiarioetan katalogatua dago. 1997ko urriaren 22ko Kultura Gazteria eta Kirol sailburuaren Alkizako Balizko Arkeologia Guneen izendapenaren Erabakiaren arabera, baserriak **A motako Balizko Arkeologia Guneek** duten babes esparrua izango du (eraikinen hornez barrukoa hartzen duena, alegia).*

*Eraikina Alkizako erabilera berezirik ez duen lur ez-hiritargarran kokaturik dago.*

*Gipuzkoako Foru Aldundiko katastroan gaurregun etxebizitza bakarra dago Urruzolan.*

*Etxebizitza berriaren antolamendu eta neurriek Alkizako arau subsidiarioen egoitza erabilerari dagokion 19º artikulua esaten duenarekin bat egiten dute.*

*Lurzoru hiritarrezinaren aldatutako araudiaren 2.3 artikulua aurretik dauden baserri eta etxebizitza familiabakarrak arautzen ditu.*

*2.3. Art. Aurretik hor dauden baserriak eta etxebizitza familiabakarrak.*

*a) Lehendik dauden baserriak eta egungo etxebizitza familiabakarren eraikuntzak finkatuak gelditzen dira eraikin nagusiaren atalarekin bat egiten*



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

*duten zatian, gehitutako behinbehinekoak, teilapeak, eta itsatsitako edo gertuko txabolak antolamendutik kanpo geratzen direlarik. Baserrien barrualdean dauden ganadu-instalazioak bertatik kendu beharko dira.*

*Barnealdea moldatzeko, teilatua konpontzeko eta abarrerako lizentzia eskatuz gero, Udalak exijitu dezake ganadua baserretik bertatik kanpo ezartzea, hiru ganberako depuradora bat ezartzea, (biztanle posibleentzat dimentsioak justifikatuz eta akuiferoetatik 200m-ra ezarriz), edota aurreko paragrafoan aipaturik antolamendutik kanpo geratzen diren osagaiak desegitea.*

*Arazketarako eremuak edo elementu depuratzaileak, efluenteen irteeran, drainatzeko zangak izan beharko ditu lurrari ura iragazteko. Zanga horiek distantzia egokian egon beharko dira, efluente horiek aldameneko onibarretan ez isurtzeko eta bertan ez ibiltzeko.*

***b) Lehendik dauden baserriak gainerako lur ez urbanizagarriaren kategoriako 2 hektareako jabetzei lotuko dira, itsatsiak eta zatiezinak direla deklaratzuz gero.***

***Beste etxebizitzak aurretik obra-lizentzia eskuratu zuen lursailarekin lotuko dira.***

*c) Lehendik dauden baserrietan 2 etxebizitza egongo dira gehienez.*

*Honen arabera baserria kontsolidatua dago beste etxebizitza bat egon daitekeelarik. Urruzola baserria bi etxebizitzekin, erabilera esleitu gabeko lur ez urbanizagarriaren kategoriako gutxienezko 2 hektareako jabetzei lotua geldituko da, **itsatsi eta zatiezin modura**. 20.000m<sup>2</sup> hauetatik, 5.000m<sup>2</sup> baserria kokatua dagoen lursailean izan beharko dira.*

*Beraz, aurreko hau betetzen bada, Urruzola baserriko 2º etxebizitza berria legeztagarria dela informatzen dut.*

***Etxebizitzaren lehen erabilerarako*** eskrituraren berradorea eta instalazioen buletinak ekarri beharko dira udaletxera, lanak legeztatzeaz azken ziurtagiriarekin batera.”

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- M.A.A. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Alkizako Urruzola baserrian dagoen 2º etxebizitza legeztatzeaz baimena ematea, betiere, Udal Aholkulari Teknikoak eginiko txostenean jasotako baldintzak betetzen baditu.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

BIGARRENGOA.- M.A.A. andreaki erabaki honen berri ematea.

### **SEIGARREN PUNTUA**

#### **LANKIDETZA HITZARMENARI ATXIKITZEA, TRAFIKOKO BURUZAGITZA NAGUSIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA FEDERACION ESPAÑOLA DE MUNICIPIO Y PROVINCIAS -en ARTEKOA, INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA EUREN ARTEAN LANKIDETZAN ARITZEKO**

Ikusirik Trafikoko buruzagitza nagusia erakunde autonomoaren eta "Federación Española de municipios y provincias"-en arteko hitzarmena, non informazioa trukatzeko eta euren artean lankidetzan aritzekoa den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmen horren helburua dela, herritarra udal bulegora erroldatzera edo erroldan aldaketa bat egitera datorrenean, aldaketa horiek Trafikori jakinaraztea, bai gida baimenaren datuetan, bai eta ibilgailuen datuetan aldaketak burutu daitezen, Trafikoko ordezkari bulegora joan beharrik izan gabe.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### **ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Trafikoko buruzagitza nagusia erakunde autonomoaren eta "Federación española de municipios y provincias"-en arteko lankidetzaren hitzarmenari atxikitzea, informazioa trukatzeko eta euren artean lankidetzan aritzeko.

BIGARRENA: Alkizako Alkate-Lehendakaria den Jon Umerez Urrezola jaunari, aipaturiko hitzarmenak sor ditzazkeen dokumentuak sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA: Trafikoko buruzagitza nagusia erakunde autonomoari erabaki honen berri ematea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

#### **2016 URTERAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA URAL ZERBITZUENGATIKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2016 ekitaldirako Ordenantza Fiskal eta Tasa eta Prezio Publikoen udal ordenantzak eguneratzeko eta aldatzeko, egindako ondorengo proposamena:

**- ZERGAK**





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

### **1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.**

Tarifak mantentzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara gelditzen da:

- Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,198a.
- Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaien karga tasa: %0,198a.
- Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,892a.

Hobariak mantentzea proposatzen da:

-Kuota osoaren % 30eko hobaria subjektu pasiboak famili ugarien titularrak direnean.

-Kuota osoaren % 25eko hobaria, eguzki energiaren aprobetxamendu termikoa edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinatarako.

-Obra berriko higiezinak edo urbanizazio prozesuan daudenak % 50.

### **2. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.**

Ordenantzaren eranskina mantentzea proposatzen da:

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 1,68-an mantentzea proposatzen da.

### **3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.**

%1,61ko koefizientea aplikatzea proposatzen da.

Beraz, Ordenantzaren eranskina era honetara aldatzea proposatzen da:

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. % 1,61

A)Turismoak:

Euroak



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

9 zaldi fiskal bitartekoak.....	29,03
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak.....	58,06
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak.....	96,77
14 - 15,99 zaldi f.bitartekoak.....	135,47
16 - 19,99 zaldi f.bitartekoak.....	174,17
20 zaldi fiskaletik gorakoak.....	212,88

B)Autobusak:

21 plaza bitartekoak .....	134,12
21 - 50 plaza bitartekoak.....	191,01
50 plazatik gorakoak .....	238,77

C)Kamioiak:

1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria.....	68,07
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.....	134,12
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e.....	191,01
9.999 kg-tik gorako k.e.....	238,77

D)Traktoreak:

16 zaldi fiskal bitartekoak.....	28,45
16 – 25 zaldi f. bitartekoak.....	44,71
25 zaldi fiskaletik gorakoak.....	134,12

E)Trakzio mekanikoko ibilgailuen atoi eta erdi-atoiak:

750-1000 kg. bitarteko karga erabilgarria.....	28,45
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e.....	44,71
2.999 kg.tik gorako karga e.....	134,12

F)Gainerako ibilgailuak:

Ziklomotoreak.....	7,12
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak.....	7,12
Motozikletak 125 - 250 z.k. Bitartek.....	12,19
Motozikletak 250 - 500 z.k. Bitartek.....	24,40
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. Bitartek.....	48,77
Motozikletak 1.000 cctik gora.....	97,54

**1.4.Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.**

Ondorengo tarifak eta hobariak mantentzea proposatzen da.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- Nekazaritza-Abeltzaintzako esplotazio munduari lotutako ekitaldi, eraikuntza, obra... benetako kostuaren ..... % 2,5
  - Babes Ofizialeko etxebizitzak. Benetako kostuaren ..... % 2,5
- Besteak: ..... % 5,00

#### HOBARIAK:

1,-% 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrak ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean. Ondoren aipatzen diren baldintzak bete beharko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

-Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarria eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.

-Obrak eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobaria eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

2.-Abelgorrientzako estabulazio berriak eraikitzeak eta baita ere Udal Planeamenduko AA.SS.etako katalogoan sartutako eraikuntzak berritzeko eta birgaitzeko obrak, hain zuzen ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailaren txosten baimenean bildutako baldintzak garatuz babestuko diren elementu berezietan egin daitezkeen jarduerak helburu dutenak. Zerga kuotaren % 95eko hobaria izango dute.

#### **1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.**

Ondorengo tarifak proposatzen dira:

Portzentaiak:

- a)1 urte 5 urtera bitarteko % 3,6
- b)10 urte artekoa % 3,4
- c)15 urte artekoa % 3,1
- d)20 urte artekoa % 2,9

Karga tasa: % 6-an mantentzea proposatzen da.

## 2. TASAK



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza.**

### **2.1.1. Ur horniketa.**

Tarifen modifikazioan burututako proposamena igotzearena izan da:

- Etxeko erabilerako ur hornidura:

\* Gutxienerako 45 m<sup>3</sup> 11,00 euro.  
\* Seihilabeteko 45 m<sup>3</sup> gutxieneratik aurrera: 0,36euro.

- Merkatal edo industri erabilerara zuzenduriko ur hornidura:

\* Gutxienerako 90m<sup>3</sup> 29,00 euro.  
\* Seihilabeteko 90 m<sup>3</sup> gutxieneratik aurrera: 0,43 euro.

- Udalerritik kanpo kokaturiko eraikinetako ur hornidura:

\*M3 bakoitza 0,78 euro.

- Mantenimendu kuota 9,25 euro seihilabeteko

- Hondakinen isurketen kuota(Plazako auzoa) Ur errezioboaren % 34,00a

Hobariak: Gizarte ongizate zerbitzuak proposatutakoak

### **2.1.2. Zabor bilketa zerbitzua**

Tarifen modifikazioan burututako proposamena tarifak igotzearena da:

Etxez-etxeko bilketa, hileko.....12,50 euro  
Industria, komertzio eta taberna bilketa, hileko..... 23,34 euro

HOBARIAK: Gizarte ongizate zerbitzuak proposatutakoak

### **2.1.3. Dokumentu administratiboaren igorpena:**

Ordenantzaren eranskina mantentzea proposatzen da:

\* Jarduera baimenak: 225euro.  
\* Animalia arriskutsuen inskripzioa: 25 euro.  
\* Hirigintza kontsultak: 65,00 euro.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- \*Segregazio baimenak, 5 partzela arte 75,00euro.
- \*Segregazio baimenak, 5 partzelatik gora 150,00euro.
- \*Lehen erabilera baimenak 100,00 euro.
- \*Lur mugimendurako baimenak.....0,20 m3 bakoitza
- \*Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkietza urtekoa...60€
- \*Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkietza hiruhilekoa...20€
- \*Don Juanena etxeko kirol gelarako bazkietza hilerokoa...10€
- \*Don Juanena etxeko kirol gela erabiltzea.....2€ eguneko

*Ondorengo tasa berri hauek onestea proposatzen da:*

- 60.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetza.....30 euro
- 60.000 euro baino gehiagoko aurrekontua duten obratako lizentzien izapidetza.....50 euro

#### **2.1.3.1. Iharduera baimenak Euroak**

- A.1. Klasifikatutako jarduera.....110,00 euro
- A.2. Klasifikatutako jardueraren aurretiazko komunikazioa.....80,00 euro

**2.1.3.2. Baimenik gabeko edo ezkutuko obra baimenaren legeztapena: Obra lizentzia emateagatik ateratako tasaren %200.**

#### **2.1.4.-Buzoietako giltzaren kopia eta zerraila aldatzea..... 7€**

**2.1.5.- Udal bide publikoen lurzoruan, zorupean edo hegalduran erabilera privatibo edo aprobetxamendu bereziak egiteagatik tasa.**

Tarifak mantentzea proposatu da.

#### **2.1.6.- Hilerriko zerbitzuengatik tasa.**

Ondorengo tasa mantentzea proposatu da:

- Lurperatze tasa: 175,00 euro.

*Tasa berri hau onestea proposatzen da:*

- Lurrean dauden gorpuzkiak bertatik ateratzea.....50,00 euro



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkari Kontuhartzaileak 2015ko urriaren 1ean egindako txostena, zeinetatik ondorioztatu daitekeen aipaturiko proposamenak araubidearekin bat datozela.

Gaia azterturik Udalbatzak aho batez ondorengoa,

## ERABAKITZEN DU

**LEHENA.-** Aipaturiko proposamena akordioa bihurtzea eta beraz, azaldutako baldintza beretan onestea.

**BIGARRENA.-** Aurreko puntuak aipatzen dituen akordioak jendaurrean jartzea 30 lanegunez, ondorioztatu daitezken erreklamazioak edo oharren efektuetarako. Horretarako dagokion iragarkia argitaratuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaletxeko Iragarki Taulan.

**HIRUGARRENA.-** Hartutako akordioak eta Ordenantzen eta beraien GEHIGARRIEN aldaketak behin-betikoak bihurtuko dira, beste akordio berriren beharrik gabe, informaziorako arauzko epea pasa ondoren inolako erreklamaziorik edo oharrik egin ez balitz. Beraz, 2016 urteko urtarrilaren 1ean ipiniko lirateke indarrean Ordenantza Fiskal eta Tasa Publikoen Ordenantza berriak.

**LAUGARRENA.-** 2016 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

### **2016 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:**

#### 1.- HOBARI ESKAERA:

- 2016 urteko otsailaren 1etik martxoaren 1arte.

#### 2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:

2016 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 1 arte.

#### 3.- URA TASA:

1. sei hilabetea: 2016 urteko iraila 1etik azaroaren 2a bitartean.
2. sei hilabetea: 2017 urteko otsailaren 1etik apirilaren 3a bitartean.

#### 4.- ETA ZABORREN TASA:



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

- 1.seihilabetea: 2016 urteko uztailearen 1etik irailaren 1a bitartean.
- 2.seihilabetea: 2017 urteko urtarrilaren 3tik martxoaren 3ra bitartean.

### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

### **TOLOSALDEKO HILTEGI MANKOMUNITATEARI 2015 URTERAKO EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Hiltegiko Mankomunitateak irailaren 23an egindako bilkuran, aho batez erabaki zuten, Mankomunitateko kide diren Udalek erakundearen langilearen soldata ordaindu ahal izateko, 2015urtean 30.000 eurotako ekarpena egin behar zutela. Alkizako Udalarari 113,00 euro suposatzen diolarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Hiltegi Mankomunitateari 2015 urteari dagokion ekarpena onestea eta burutzea, 113,00 euroko diru kopuruan.

BIGARRENA: 113,00 euroko gastua onestea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

### **9.1. AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2015-eko 3. ETA 4. HIRUHILABETEKO EKARPENAK BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2015eko urriaren 22an Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkezturiko idatzia, non 2015 ekitaldiko 3. eta 4. hiruhilabeteetan sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko Alkizako Udalak burutu beharreko ekarpena 23.000,00 eurokoa dela adierazten den.

Ikusirik, 2014 urtearekin konparatuta 2015eko ekarpena asko handitu dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Gaia mahai gainean uztea, informazio gehiago izan arte.



ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

## **9.2. ALKIZAKO LIBURUTEGIRAKO HAINBAT ALTZARI EROSTEKO ONESPEA, HALA BADA**

Ikusirik, Alkizako Liburutegiaren antolaketa berria egin nahi dela, horretarako beharrezkoak direlarik hainbat altzairu erostea, hala nola, mostradore bat, mahai auxiliar batekin eta rebistero bat.

Ikusirik, JOYN mobiliario-ri aurrekontu bat eskatu zaiola, guztira 1.067,16 euro izanik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Joyn mobiliariok aurkezturiko aurrekontua onestea, hau da 1.067,16 euro (BEZ-a gabe), Alkizako liburutegirako mostradore bat, bere mahai auxiliarrarekin eta rebistero bat erosteko.

BIGARRENA: 1.291,27 eurotako gastua onestea.

## **9.3. GUIFINET EKOSISTEMA EZARTZEKO PROIEKTUAN EGINDAKO LANEN ORDAINKETA ONESTU, HALA BADA**

Ikusirik Oreindaingo Udalak aurkezturiko idatzia, non azaltzen duten Guifinet ekosistema ezartzeko proiektuaren egoerari irtenbide bat bilatzeko Tomas Tamayo, Adit S.L. enpresari aholkulartza lanak burutzea eskatu ziola, 2015eko martxoaren 25ean egindako bileraren ostean. Aipaturiko lanen kostua 6.776,00 euro izan delarik.

Goian aipaturiko diru kopurua Tolosaldeko eskualdean Guifi proiektua martxan duten herri guztien artean banatzea denez, Alkizako Udaletxeari eskatzen zaio 322,66 eurotako gastua onestea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

**ERABAKITZEN DU:**

LEHENA: Oreindaingo Udalak eginiko eskaera onestea, hau da, Gipuzkoa Shareren egoera aztertu eta irtenbidea bilatzeko eginiko aholkulartza lanen kostua





ALKIZAKO UDALA  
(GIPUZKOA)

onestea, Alkizako Udalaren kasuan 322,66 euro direlarik. Gastua onesten delarik eta bere ordainketa egin dadin agintzen delarik.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**  
**ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

*Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 21.45 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.*